



EBANJELIOA: BEHAR DUGUN BERRIA

“Maitatu lagun hurkoa zeure burua bezala”

2021eko urriaren 31
Urteko 31. igandea (B)

Markos 10, 46-52.

Jesusek zeinen jator erantzun zien ikusirik, galdera bat egin zion: -Zein da agindu guztietan nagusia?

Jesusek erantzun: -Hona hemen nagusia: *Entzun, Israel: Jauna da gure Jainkoa, Jauna bat bakarra da! Maita ezazu Jauna, zeure Jainkoa, bihotz-bihotzez, gogo osoz, adimen guztiz eta indar guztiz.* Eta hona hemen bigarrena: **Maitatu lagun hurkoa zeure burua bezala.** Ez da agindu hauek baino handiagorik.

Lege-maisuak, orduan: -Ederki, Maisu; egia diozu *Jainkoa bakarra dela eta ez dela besterik* esatean. *Bera bihotz-bihotzez, gogo osoz eta indar guztiz maitatzea, eta lagun hurkoa nor bere burua bezala maitatzea, erre-opari eta sakrifizio guztiak baino hobea da.*

Eta Jesusek, zuhurki erantzun ziola ikusirik, esan zion: -Ez zaude Jainkoaren erreinutik urruti.

Eta harrezkero, ez zen inor galderarik egitera ausartzen.

Jauna da gure Jainkoa, Jauna bat bakarra da!

INPORTA DUENA

Jose Antonio Pagola

Lege-maisu bat hurbildu zaio Jesusi. Ez doa segada edo tranpa bat jartzera. Une bakoitzean nola jokatu adierazten dioten lege eta arauetan oinarritua du bere bizitza. Alabaina, galdera bat atera zaio bihotzean: **«Zein agindu da lehena?»** Zer da inportanteena bizitzan asmatu ahal izateko?

Oso ondo ulertu du Jesusek gizon honek sentitzen duena. Erlizioan arauak eta aginduak, ohiturak eta errituak pilatuz doazenean, gauza erraza izaten da barreiatu bizitzea, jakin gabe zer den, zehazki, oinarrizko gauza, bizitza era sanoan bideratu ahal izateko. Honelako zerbait gertatu ohi zen judaismoaren sektore batzuetan.

Jesusek ez dizkio aipatu Moisesen aginduak. Soilik, egunsenti horretan, eguzkia irtetea eta juduen ohiturari jarraituz, jaulki duen otoitza gogorarazi dio: **«Entzun, Israel; Jainko gure Jauna da Jaun bakarra: bihotz guztiaz maiteko duzu zeure Jainko Jauna».**

Aginduak emateko boterea duen Jainkoa du buruan lege-maisuak. Jesusek, ordea, entzun behar diogun Jainkori begira jarri du gure gizona. Inporta duena ez da aginduak ezagutu eta betetzea. Funtsezko gauza, giza hitzik jaulki gabe hitz egiten digun Jainko horri adi egotea da.

Egiazko Jainkoari entzuten diogunean, maitasunarekiko erakarmena esnatzen da gu baitan. Ez da, berez, agindu bat. Geure bihotza biziaren azken Misterioari irekitzen diogunean sortzen den gonbit hau da: **«Maita ezazu».** Esperientzia honetan, ez da bitarteko erlijiosorik, ez da teologorik, ez moralistik. Ez dugu izaten kanpotik inork esan beharrik. Geurez jakin ohi dugu maitatzea dela inporta duena.

Jainkoarekiko maitasun hau ez da sentimendu bat, ez da emozio bat. Biziaren iturburu eta jatorri den hura maitatuz bizitzea da, dela bizia, dela kreazioa, direla gauzak eta dela, nagusiki, jendea maitatuz. Maitatzeaz mintzo da Jesus **«bihotz guztiaz, arima guztiaz, izate guztiaz».** Ez eskas, ez kalkulu interesatuz. Baizik bihotz handiz eta konfiantzaz.

Lege-maisuak aipatu ez duen beste gauza bat ere gehitu dio Jesusek. **Jainkoarekiko maitasun hau ezin bereizi da lagun hurkoarekiko maitasunetik.** Lagun hurkoa maitatuz bakarrik maita daiteke Jainkoa. Bestela, gezur hutsa izango da Jainkoarekiko maitasuna. Izan ere, nolatan maita genezake Jainkoa haren seme-alabak maitatu gabe?

Kristauek ez diogu eusten beti Jesusen batura hori. Sarritan jotzen dugu nahastera Jainkoarekiko maitasuna eta jarduera erlijioa nahiz otoitz beroa, gizarteak ahazturik eta erlijioak bazter utzirik dituen haiekiko maitasun praktikoa eta solidarioa alde batera utziz. Baina, zer izan daiteke egiazkorik Jainkoarekiko gure maitasunean, sufritzen ari direnei ezikusia egiten badiegu?